

2. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresa proiektu berri bat da eta hurrei zein familiei zuzenduta dago. Enpresa honen helburua, hainbat kultura desberdin ezagutzea da, eta honek, anistazuna lortzera eramango digu, gure herrian ezagutza berriak sortuz, horregaitik, gure proiektuari KULTUR- ETXE deitzea erabaki dugu.

Idea sortu aurretik, hainbat ingurune batzuk aztertzea erabaki genuen, eta herri desberdinak ikertu ondoren, gure proiektua Durangon zentratzea erabaki genuen. Egunetik egunera biztanle gehiago dituen herri bat da, eta horregatik, proiektu hau herriko kaleetatik zabaltzea erabaki dugu.

Gure herriko datuen inguruan hitz egin aurretik, gizarte osoa ere aztertzea gustatuko litzaiguke.

Uste dugu gizarte hau kanon beteta dagoela eta ondorioz, hurrek guzti hauek barneratzen dituzte. Guk egoera hauekin hautsi nahi dugu eta hala, herrian aurkitzen ditugun pertsonen arteko anistazuna lortu nahi dugulako.

Gainera, etorkizunean irakasleak izango garenez, uste dugu kulturei buruzko informaziorik ez izateak eskola jazarpen batzuk areagotzen dituela, badirelako datu hauek baieztatzen dituzten ikerketak.

Garrantzitsua da jakitea zenbat bizilagunengana joko dugun eta hauetatik zenbatekoak diren atzerritarrak, hala, zenbat bezerorengana jotzen dugun jakin ahal izango dugu.



Argazkian ikusten den bezala, Durangoko 2021eko biztanleria 29.972 pertsonetakoa da, haietatik %11,18koa atzerritarrak. Beraz, zifra zehatzei dagokienez, Durangon aurkitutako 3.350 atzerritarrak dira.

Euskal AEko biztanleria ehunekoa per lurralde eremua, jaioterria eta aldia


	2021
Durango	
Atzerria	11,18

Gainera, lanaren deskribapenean ondo esan dugun bezala, hainbat galdera dituen formulario bat egin genuen.

Galdera horiek geroago agertuko dira baina horietako batek atentziora eman digu, Durangoko herrixka atzerritarra txikiagoa

dela esaten baitu, formularioan familien jatorria galdetzen genuelako. Eta horrek dio aurreko parrafoetan jarri ditugun datuak benetakoak direla.

Origen de la familia
38 respuestas



Horrek pentsarazten digu Durangoko herrian proiektu hau beharrezkoa dela. Gainera, eremu publikoa izango denez, dibertsitatea aurkituko da eta hau aukera bat izan daiteke herritarrek pentsamolde irekiago bat lortzeko.

Honek ez du esan nahi, haurraren garapen fisikoari ez zaiola garrantzirik emango; izan ere, dinamikak ere planteatuko ditugu, kultura desberdinekin harremana izango dutenak eta gainera, motrizitatea, afektibitatea eta abar lantzeaz gain, inkontzienteki informazioa lortuko dute.

Gainera, kultura bakoitza azaltzeko behar den denbora neurtuta egongo da, baina batez besteko denbora kultura bakoitza lantzeko hilabete ingurukoa izango litzateke.

Hortaz gain, gure enpresak hizkuntzei buruzko ikastaro trinkoa eskainiko die langileei zein familieei, hainbat kulturatako hizkuntzen ezagutzak izan ditzaten. Honen helburua berriz, hizkuntza desberdinak ikastean datza eta honekin bat komunikazioaren garrantziaz jabetzea.